

1 Irakurri testua ahoskera, intonazio eta erritmo egokiekin.**Abiazioko heroï bat**

Amelia Earhart, abiazioko aitzindarietako bat, Atchison hirian jaio zen, Kansasen (AEB), 1897ko uztailaren 24an. 1920an, aire-ikuskizun batean, hegazkinak gustatzen hasi zitzaizkion. Ahaleginez eta irmotasunez, hegan egiten ikasteko eskolak ordaintzeko eta bigarren eskuko hegazkin bat erosteko dirua bildu zuen. 1922an, lehen hegaldiak egin zituen.

1927an, bizitza aldatuko zion dei bat jaso zuen:

H. H. Railey kapitainak Atlantikoa zeharkatzea proposatu zion. Onartu egin zuen, eta 1928an, lehen emakumea izan zen Atlantikoa bidaiari gisa zeharkatzen. Geroago, 1932an, bakarrik zeharkatu zuen, eta orduan ere, lehen emakumea izan zen horrelakorik egiten. Oso ospetsua zen, eta heroï nazional bihurtu zen. Baina denak ez ziren loreak: ez zegoen ondo ikusita emakumeek gizonen gauzak egitea, eta mespretxu handiko hitzak entzun behar izan zituen. Hala ere, Ameliak hegan egiten jarraitu zuen, eta 1935ean, Hawaiitik Kaliforniara joan zen hegaz.



1937an, beste erronka bati ekin zion: munduaren bira egingo zuen ekuatorearen lerroari jarraituz, *Lockheed Electra* motor biko hegazkin batean eta Frederick J. Noonan kapitainarekin. 1937ko ekainaren 1ean, Miamitik (Florida) abiatu ziren. 35.000 km egin ondoren, ekainaren 30ean, Ginea Berrian lurreratu ziren. 11.000 km baino ez zitzaizkien geratzen hurrengo helmugaraino, Ozeano Barearen erdian dagoen Howland uharteraino.

Uztailaren 2an, Amelia Howlandetik gertuko kostazain batekin mintzatu zen irratiz: «Zuen gainean gaude, itxuraz... Erregaia amaitzen ari zaigu...». Baina Amelia eta Noonan ez ziren uhartera inoiz iritsi.

Ameriketako Estatu Batuek milioika dolar eta itsas armadako hainbat hegazkin eta ontzi erabili bazituzten ere, ez zuten Ameliaren, Noonanen eta hegazkinaren arrastorik aurkitu. Oraindik ere, enigma bat da zer gertatu zen, eta espedizioak antolatzen dira hegazkinaren eta bidaiarien hondakinak bilatzeko.

HIZTEGIA

- Aitzindaria: zerbait egiten lehenengoa dena.
- AEB: Amerikako Estatu Batvak.
- Imotasunez: gogortasunez, indarrarekin.
- Ospetsua: famatua.
- Mespretxua: gutxiespeneko jarrera, "desprecio".
- Erronka: "Challenge", "reto".
- Erregaia: gasolina.

Zein da aukera zuzena?

- Non jaio zen Amelia Earhart?


a) Atlantikoan. b) Hawaiiin. c) AEBn.

- Zenbat urte zituen Ameliak Atlantikoa bakarrik zeharkatu zuenean?

a) 31 urte. b) 40 urte. c) 35 urte.

- Ez zegoen ondo ikusita emakumeek gizonen gauzak egitea. Zer gertatu zitzaion Ameliari?

a) Denen laguntza izan zuen.
b) Mespretxuzko hitzak entzun zituen.
c) Beste herrialde batera joan behar izan zuen.



- Munduari bira emango zionean Amelia zen kapitaina:

☐ Egia ☐ Gezurra

- Munduari bira ematea lortu zuten.

☐ Bai, noski. ☐ Ia-ia. ☐ Ez, ez zire ezta hasi.

- Zer gertatu zen uztailaren 2an.

☐ Ez zekiten hegazkina nora eraman.

☐ Erregai gehiago behar zuten bidaia bukatzeko.

☐ Erregai zulo batetik ateratzen ari zen.

- Diru asko erabili zen hegazkina bilatzeko.

☐ Bai. ☐ Ez. ☐ Ez da ezer aipatzen.

- Gaur egun, topatu ahal dute hegaldi misterio-
tsu honen aztarnarik (zatiren bat, gorpuk...)?

☐ Bai. ☐ Oso gauza gutxi ☐ Ezere ez.

Zuzentzailea: _____

Nota:
8